

# LAN BATZORDE IREKIAK

<b>TALDEA</b>	<b>EUSKARA ETA KULTURA</b>		
<b>IRAUPENA</b>	<b>1.5 ordu</b>	<b>EGUNA</b>	<b>2016-02-11</b>
<b>GAIA</b>	<b>Udaberri kulturala</b>	<b>DEIALDIA</b>	

## PARTE HARTZAILEAK

Ane Miren Aizpuru	Arantzazu Baztarrika		<b>Ezin etorria adierazi dute:</b>
Jokin Murua	Irati Aldazabal		Iban Maiz
Iñigo Igartzabal	Jon Ander Larrañaga		Leire Murua
Marian Bidegain			Xabat Goikoetxea

## ERABAKIAK

<b>GAIA</b>	<b>EKINTZAK</b>	<b>ARDURADUNA</b>
<b>Udaberri kulturalerako eskuorriak</b>	Gazte lokalekoei esango zaie esku orrietarako marrazkiren bat egiteko. Esku orriak otsailaren 26rako esku artean izatea nahi dugu.	
<b>UDABERRI KULTURALA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- <b>Karmelo Ayestaren hitzaldia;</b> <i>“Goza daiteke gehiago euskaldun baten hizkuntza bidaia”</i> liburua idatzi zuen (irakurle txokoan azkena landutakoa) eta hitzalditxo bat ematera etortzeko prest dago. <b>Martxoak 11, ostirala, 19:00etan</b></li><li>- <b>Kirolariekin solasaldia.</b> laz egin zen bezalako zerbait egin nahi dugu: moderatzaile bat eta 3-4 kirolari. laz Igor Sarriegi aritu zen eta berarekin hitz egitekotan gelditu gara. Kirolarien izen batzuk baditugu pentsatuta (Txomin Arana, Eli Pinedo, Iker Iribarria, Edurne Unamuno, Alazne Furundarena...), baina ez dugu ezer lotu oraindik. <b>Martxoak 18, ostirala, 18:30ean</b></li><li>- <b>Aberri eguna</b> <b>Martxoak 27, igandea</b></li><li>- <b>VL. Osinalde Saria.</b> <b>Apirilaren 2an</b></li><li>- <b>I. Leharrei Mendi Lasterketa.</b> I.Leharrei mendi lasterketa egingo da. <b>Apirilaren 9an</b> <a href="http://www.leharrei.eus">www.leharrei.eus</a></li><li>- <b>Sukaldaritza ikastaroa.</b> Aztiriko Maria Jesusekin hitz egingo dugu ea ze egunetan egin dezakeen tartetxo bat astean zehar apiril aldera. <b>Esaterako (asteazkenen batean) apirilak 6, 13 edo 20an, 17:30ean</b></li></ul>	

<p style="text-align: center;"><b>UDABERRI KULTURALA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Eskola umeekin grabatutako bideoak.</b> EMUNekoek proposaturiko dinamika saioa begi onez ikusi dugu eta bebingoz bideoak erakutsiko dira. Gurasoen kontzientzian eragite aldera eskola umeekin grabatutako bideoa eta Aldundiak grabatutako beste bat herritarren aurrean azaltzeaz gain, gai horri buruzko ikastaro-tailer-praktiko bat egongo da, EMUNekoek dinamizatuta. Guraso nahiz interesa duen edonorentzat izango dira. Baina ez umeentzat. 2 ordu iraungo ditu eta <b>400 euroko kostea</b> edukiko du dinamizazio saioak. <b>Apirilak 16, larunbata, 17:00etan</b></li> <li>- <b>Jakoba Errekondo.</b> Etortzeko prest dago. 200 € eskatu ditu, baina prezioa jaisteko prest agertu da. <b>Apirilak 20, asteazkena, 18:00etan</b></li> <li>- <b>Errezildarren ateraldiak.</b> Laxaro Azkune eta Imanol Lazkano ateraldiak kontatzera etorriko dira. <b>Apirilak 22, ostirala, 18:30ean</b></li> <li>- <b>Umeentzako kale antzerkia.</b> Ez dago garbi diru laguntzarik jasoko den, baina eskatu eskatuko da. Zehaztu gabe geratu da ze kale antzerki izango den: "Kondaira baten truke" edo "Azken eguzkilorea" <b>Apirilak 30, larunbata 17:30ean</b></li> <li>- <b>Goienerreko hitzaldia.</b> Energia berriztagarriari buruzko hitzaldia. <b>Maiatzak 6, ostirala, ordua konfirmatu gabe dago oraindik</b></li> <li>- <b>Felix Zubia.</b> Etortzeko prest dago aurreko urteetako tradizioari jarraiki, baina oraindik ez dago egunik zehaztuta. Berak proposatuko du eguna.</li> <li>- <b>Ibilaldia.</b> Aurten I.Leharrei mendi lasterketa izanda ibilbide osoko ibilaldia egin daiteke (ibilbideak 24 km ditu). Bi ibilaldi egitea ere ondo legoke; motza eta luzea. <b>Ez dugu egunik zehaztu, Leharrei antolatzen dabiltzanekin hitz egingo dugu.</b></li> <li>- <b>Korukoen eta judoko erakustaldiak.</b> Urtean zehar herrian jarduten direnei herritarren aurrean zerbait eskaintzea proposatuko zaie.</li> <li>- <b>Jubilatu bazkaria.</b> Udalean zehaztu beharko dugu zein egunetan egin. <b>Maiatzak 8 izan daiteke.</b></li> </ul>	
<p style="text-align: center;"><b>TELP tailerrak</b></p>	<p>Ezkioko Udalekoekin hitz egin ostean Gabiria eta Ezkioko artean erdi bana ordaintzea erabaki da.</p> <p>Hala ere, momentuz udazken alderako utziko da; ea Ezkiokoek zer dioten.</p>	
<p style="text-align: center;"><b>Autodefentsa ikastaroa</b></p>	<p>Judoko irakasleak martxoak 5 edo 26 proposatu zituen ikastaro hau emateko.</p> <p>Bi egun hauetatik egokiena 5a zela erabaki zen arren, hau eman ahal izateko gutxienez 10 pertsona, eta gehienez 20ko taldea osatzea eskatzen zuen; eta 15euroko buruko.</p> <p>Martxoak 5erako deialdia egin, jendea apuntatu eta dena ziurtatzeko denbora justu samar zegoela iritzita, aurreagorako uztea erabaki da.</p>	

<b>Liburu proiektua</b>	Paulo Agirrebaltzategik Julian Alustiza "Aztiri" zenak bildutako hainbat esamolde eta hitzekin liburu proiektu bat aurkeztu zuen. Argitalpena nahiko aurreratuta dago eta laster izango da argitaratuta.	
<b>Islandiako euskal arrantzaleen hilketak</b>	Dokumentala egin zuen Beasaingo taldearekin hitz egin ostean aurreagorako uztea erabaki da.	
<b>Hartu eman ikastaroak</b>	"Ogia eta gailetak" ikastaroa beste baterako utzi beharko dugu, Zuhaitz Akizu kanpora baitoa.	
<b>Makilari</b>	Lan guztiak entregatuta daude eta datorren astean maketatzera bidaliko dugu.	

## HURRENGO BATZORDEA

MAIATZAREN 12an, osteguna, 19;00etan